

# BASKEPENSIONES 15 GAPI

## INBERTSIO POLITIKA

Arriskurik gabeko aktiboeekin lortu daitekeena baino errentagarritasun handiagoa nahi duten inbertsio-profil kontserbadoreko pertsonentzat. Horretarako, inbertsioaren zati bat, gehienez % 15, errenta aldakor nazional eta nazioartekora bideratzen da.

### 2021/02/28an Errentagarritasunak UTB

1 hilekoa*	3 hilekoa**	Urtekoa*	Urte 1	Urte 3	Urte 5	Urte 10
-%0,21	%0,11	-%0,37	%2,69	%1,17	%1,49	%2,12

\*Urtebete baino epe laburragoak diren errentagarritasunak ez dira urtekotzen.

2020	2020	2019	2018	2017	2016	2015
-%0,37	%2,15	%6,25	-%4,40	%1,65	%1,05	-%1,34

\*Iraganeko errentagarritasunek ez dute garantizatzen etorkizuneko errentagarritasunik.

### 2021/02/28an Estatistikak

Lurrunkortasun 1 urte**	%4,79
Lurrunkortasun 3 urte**	%3,31

\*\*Informazio hau ez dago erabilgarri, fondoaren antzinasuna edo inbertsio-politikaren azken aldaketatik igaro den denbora, adierazitako epea baino txikiagoa denean.

## HILEKO IRUZKINA

Otsailean, zenbakiak hobekuntza berretsi dute pandemiaren eboluzioan mundu mailan. Horren arrazoia izan dira, alde batetik, birusaren hedapena gelditzeko gobernuek ezarri dituzten murrizteak, 2020. urte amaieratik 2021. urte hasierara bitartean, eta, beste aldetik, txertaketan izan den aurrerapena. Horren ondorioz, herrialde batzuek, adibidez, Alemaniak eta Erresuma Batuak, deskonfinamendu estrategiak iragarri dituzte. Gainera, Euro Gunean zerga arloko laguntza berriak izan dira (bereziki, EEBBetan martxorako espero diren 1,9 bilioi dolarrek), eta Johnson and Johnson-en txerto berri bat onartu da Amerikan (eta laster Europan ere onar liteke). Horren ondorioz, ziklo ekonomikoa bizkortzeko aukerak igo egin dira, eta


horrek hobetu egin du inbertsio joera eta lehengaien gorakada eragin du. Bestalde, inflazioa izateko aukera bihurtu da eztabaidagai berria finantza merkatuetan, azken asteotako gorakadaren ondoren. Beldurra dago ekonomiak berpizteko ezarritako likidezia kopuru izugarriak eta ekonomia laster berpizteko dagoen itxaropenak inflazioa bultzatzea, eta horrek alarma piztu du, pentsatuz ea banku zentralak aurreikusitakoa baino lehen aldatu beharko ote duten beren politika hedakorra. Horrek asko astindu du bonuen merkatua, eta, gainera, kezka areagotu egin da, errenta finkoa igotzeak eragina izan dezakeelako apalankamendurik handiena duten enpresetan finantzaketa baldintzak gogortzen badira. Bai FED bai EBZ erakundeak berehala merkatuak lasaitzen saiatu

dira, adieraziz behin-behineko inflazio gorakadak direla, eta esan dute, berriro ere, mugarik gabe utsiko diotela moneta hedapenari, behar adina denboran. Bitartean, burtsetan, arriskuarekiko zaletasuna igo egin da; hilabete amaieran soilik moteldu zen zerbait, inflazioa izateko aukerak igotzean. Europan, Eurostoxx-50 indizeak % 4,4ko puntuazioa izan du, eta Ibex-a izan da eskualdeko indizearik onena (% +6), sektore profil ziklikoagooa duelako; Italia dago bigarren, Mario Draghi gobernuak presidentea jartzeak konfiantza sortu ondoren. EEBBetan, Dow Jones eta S&P-500 % 3,1 eta % 2,6 igo dira, hurrenez hurren, eta Nasdaq teknologikoak zenbaki apur bat negatiboetan amaitu du (% -0,12), iazko martxotik iguera gehien metatzen duen sektorea atera ondoren.


Japonia % 4,7 igo da, eta sortu berriek, orokorrean, % 0,7 batu dute; Asiako burtsek nabarmen aurrera egin dute. Errenta finkoari dagokionez, amerikar zorraren salmenten ondorioz 10 urterako orekatu egin da, eta % 1,40ko interesa eskatu du, aurreko hilabetean % 1,07koa bazen ere. Bonu amerikarren salmentek Europako zorrean eragin dute, maila txikiagoan izanik ere. Alemaniak % -0,26ra iritsi da, aurretik % -0,52 izanik. Bestalde, herrialde periferikoek ere tentsioa jasan dute, eta beren arrisku primak igo egin dira, Italian salbu. Espainiako bonuaren kasuan, 7 puntu, 0,62ko mailara arte. Bestalde, euroa apur bat ahuldu da dolararekiko, 1,208\$/ -ra arte. Petrolioak % 17 baino gehiagoko gorakada izan du eta irabaziak ia % 26 igo dira urtean barrena.

## EZAUGARRI OROKORRAK


Ondarea:	2.665.530.108,92
Komisioak guztira:	%1,60
Harpidetza komisioa:	%0,00
Errenboltso Komisioa:	%0,00
Arrisku-profila:	Baxua
Inbertsiorako gutxienezko epea:	-



### Zorroaren banaketa



### Errenta aldakorreko zorroaren banaketa geografikoa



# BASKEPENSIONES 15 GAPI

## BASKEPENSIONESEN ONURAK:

- Aurrezteko finantza-tresna, zure etorkizuneko pentsio publikoa osatzen laguntzeko.
- Nahi duzun eta ahal duzun moduan aurrezteko malgutasun osoarekin.
- Inbertitzeko politika desberdina duten Baskepensiones desberdinen artean zure aurrezkia askatasunez mugitzeko aukera, zure profilaren arabera hobeto egokitzeko.
- Konfiantza Kutxabanken. Epe luzerakoak izan daitezkeen eragiketetan garrantzitsua da.
- Onurak Kutxabaneko beste produktu batzuetan (gordailuetan, maileguetan, eta abarretan).

Eta gainera, banakako BGAE denez, **PFEZaren Zerga Oinarria murrizten duten ekarpenetarako zerga-tratamendu onenaz balia zaitzke.**

## BASKEPENSIONES 15 PLANAK HONAKO ONURAK DITU:

**KUDEAKETA PROFESIONAL AKTIBOA**, inbertsioak merkatuen inguruabarretara egokitzeko. Eta **OROKORRA**, dibertsifikazio geografiko eta sektorialarekin.

**ARRISQUAREN KONTROLA.** Aktiboen analisi eta jarraipen etengabea egiten dugu errentagarritasunaren eta arriskuaren arteko oreka onena lortzeko.

**EGUNEROKO JARRAIPENA**

Espainiako ondare-kudeatzaile nagusietakoaren **ESKARMENTU ETA KALITATEA** (Kutxabank Gestión).

**ZEURE  
B  
PLANA  
BASKE  
PENSIO  
NES**  
BANAKAKO BGAEa  
Kutxabank SA  
Bazkide sustatzailea.  
Kutxabank Gestión  
IKESK SAU Ondare  
Kudeatzailea.



## PROBA EZAZU ERRETIRORAKO GURE SIMULAGAILUA

Zure egoerari buruzko banakako txostena prestatuko dizugu. Simulagailuarekin zenbateko pentsioa kobratuko duzun, erretiroa hartutakoan bizimoduari eusteko zenbat aurreztu beharko duzun eta zure beharrianetara zein plan hobeto egokitzen zaizun kalkulatu ahal izango duzu.

**Hasi etorkizuna planifikatzen,  
Baskepensioneseekin:  
SIMULAGAILUA**